

Noaua!!

H A M A B O S T E K A R I A

Urbil, 80. Zenbakia



**Umeentzat
gabonetako oparirik
onena**

ATXEGA hotela,
jaketxea eta kafetegia



**Gabon zoriontsuak pasa
ditzazuela
URTEBERRI ON!**

Tlf. 943 37 11 50

Txerrimunik ordainetan



Zorionak **Aroa!**
Abenduaren 22an 13 urte bete dituzu. Muxurik haundiena zuretzat. Gurasoen partez.



Zorionak **Enara!** Abenduaren 18an bete zenituen 8 urte. Muxu haundi bat eta urteaskoan sorgina. Zure anaia eta lehengusuen partez.



Zorionak **Xabat!** Gure etxeko mutil pottokoak bere lehenengo urtea bete zuen abenduaren 13an. Zure anaia Peru, zure lehengusu Joanes, Beñat eta Maddi eta famili guztiaren partetik zorionak eta muxu haundi bat.



Barkatu bikote!
Berandutxo bada ere zorionak eta muxu haundi bat amatxo eta Leireren partez.



Aupa "rubia", urte bat gehiago jasotzeko zama iritsiko ez zitzaizulakoan zeuden edo? Urtezahar egunera arte itxaron beharra ere!



Abenduaren 28an egun berezia izaten omen dela eta zuretzat oraindik eta bereziagoa. Aurten ere elkarrekin ospatuko dugu. Zorionak **Esther Ibar**guren! Etxekoak



Zorionak "Xomorro". Urruti baha-go ere herritarrok gogoratzen gaituk hitaz. Abenduaren 27an hire urtebetetze eguna denez, zorionak eta eutsi goiari. Euskal presoak etxera!!

Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota tituluren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tarte hau erabili dezakete. Ekarri jarri beharreko testua eta argazkia.

Hurrengo alea: urtarrilaren 14an
Ekartzeko azken eguna: urtarrilaren 7an

Jaiotzak

Maitane Bengoetxea
Salvador
(1999-12-05)
Kaleberri

Uxue Rezola
Arrillaga
(1999-12-09)
Kaleberri

Hildakoak

1999-12-04
Jose Luis Martija
Iparragirre
74 urte
Zubieta

1999-12-06
Antonio Moral
Algaba
79 urte
Olarriondo

K9NK9LDEG9A

Barruko arropa finak
eta etxeko arropak

Zorionak eta urte berri on!
Aritzeta, 1
Tel. 36 17 87



Galdaragintza eta Errementaldegia

TALLERES
SETABU, S.L.
TAILERRAK

Ugarte Industrialdea, 7 Pabiloia
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

Tel.: 943 36 08 48



TRUK E TRUK E TRUK E

JANTZIAK
Eguberri on!
Zorionak!
Erdiko kalea, 2
Tel:37 34 81

P A T R I

J A T E T X E A
Eguneko bazkariak
eta afariak

Zorionak eta eguberri on!

Nagusia, 6
Tlf 36 27 25



Urtinea Elkarte

Loreak - Lore landareak

Lore sortak - Koroak

Zorionak!!

San Esteban
Tlf.: 943 36 22 55

XABIER

EDARITEGIA
Etor zaitez,
eta dasta itzazu
Goierriko produktuak

X Idiazabal gazta
X Beasango odolkiak...

Kontseju zarra, 13 ☎ 943 36 04 66

Zer irizten?

**Argitaratzailea**

Noaúa! Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21
E-mail: noaúa@topagunea.com
Web orria:
<http://www.topagunea/noaúa/>

Kazetarien koordinatzailea

Josu Aranberri

Kazetariak

Josu Aranberri, Amagoia Mujika eta Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea

Saioa Erro

Kolaboratzaileak

Pedro Mari Matxain, Ines Kamino, Leire Atxega, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zalao Arnaz, Maribi Arrospeide, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Olatz Leoz, Mikel Bengoetxea, Agustín Eснаоla, Izaskun Zubiria, Olatz Goenaga, Izaro Aizpurua, Joxe Loidi, Begoña Arriaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Kar-mele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Joxe Torregaray, Manuel Begiristain, Jone Aliri, Eukene Kamino, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiatur eta Arantxa Irazustabarrena.

Administrazioa

Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea, eta Nerea Kamino.

Erredakzio Kontseilua:

Josu Aranberri, Ainhoa Azpiroz, Amagoia Mujika, Agurtzane Solaberrieta eta Saioa Erro.

Maketazioa eta diseinua

Susana Martín, Aitziber Elortza, Olatz Goenaga eta Mertxe Gonzalez.

Dokumentazioa

Idoia Agirre, Aintzane Aizpurua eta Nagore Gonzalez

Informatika

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

Banaketa

Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo Vidal eta Iker Muguruza

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaúa! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaúa! Kultur Elkarteko jendaurreko udarako ordutegia: 11.00-13.00 astegunetan

**Kontzientzi presoak:**

Francoren diktaduraz geroztik zibilei egiten zaizkien lehen guda kontseiluak

Luis Mari Ormaetxea Santsiñena

Joan den 1998ko martxoaren 7an, eta "EJERZITORIK EZ. PRESERBA ZAITEZ" lemapean, ekintza antimilitarista bat burutu zen Donostiako Loiolako kuartelean. 5 antimilitarista kuartelean sartu ziren, eta preserbatibu handiz kainoi batzu es-tali zituzten, ondoren beraietara katea-tuz. Ekintza hori burutu zuten 5 antimili-taristak honako hauek dira: Noelia Cha-rrro, Manu Ruiz, Oscar Lopez, Xabier Hu-izi eta Endika del Rio. Bostak detenuak izan ziren eta aske geratu ziren 4 ordu kuarteleko ziegetan pasa ondoren.

Militarrek epai-prozedura hasi zuten 5 antimilitarista hauen aurka, eta proze-dura-instrukzioa Iruñean amaitu ondo-ren, GUDA-KONTSEILUA burutu da 1999ko azaroaren 23an A Coruñan. Francoren diktadura ezkerostik zibilei egiten zaien lehen guda kontseilu politi-koa dugu honako hau. Fiskal militarrek 2 urteko espetxe zigorra eskatzen du anti-militarista bakoitzarentzat, eraikuntza militarrean sartzearen akusaziopean.

Antimilitarista hauek ez dira bakarrik izan A Coruñan, 71 lagunek bere burua autoinkulpatu baitute. Hauen artean unibertsiteateko irakasle ugari, giza mugimenduko eta Elizako ordezkari, eta Eusko Legebiltzarreko parlamentariak.

Honako hau ez dugu azken epaiketa izango. Abenduaren 16an, tribunal berean, A Coruñan, beste 6 antimilitarista epaituak izango dira: Lukarte Aresku-rrinaga, Josu Gomez, Asier Amezaga, Mikel Sanchez, Ander Eiguren eta Jesus Martinez. Bizkaitar hauek 18 hilabeteko gartzel zigorra dute aurrez aurre.

Antimilitarista hauen delitua: 1996ko Abenduaren 28an (inuxente eguna eta kontzientzi eragozpen legearen ur-teurren) Bilboko kuartel militarrean mo-nigote erara mozorroturik sartu eta ber-tako kanoietara kateatu izana.

Ejertzitoaren profesionalizazioa bene-tako inuxentekeria izaten ari da. 1997an eskeintzen zen postu bakoitzeko 4,17 eskatzaile baziren, 98an 3 izatera jait-si zen, eta aurten, 1,56 besterik ez; nahiz eta 3700 miloi gastatu propaganda egi-nez. Argi dago "desesperatuak" baka-rrik doazela une honetan.

Intsumisioak militar bokazioarekin amaitu du guztiz, eta hor daude zenba-kiak: azken datoen arabera 1999an 180.697 eragozle berri ditugu; beraz, kontzientzi eragozpenaren legea onartu zenetik 1.000.000 bat lagun.

Kuarteletan sartze-ekintza hauek mugimendu antimilitaristaren KUARTELE-TAN INTSUMISIOA estrategian kokatzen da. KUARTELETAN INTSUMISIOA militaris-moari eta ejerzitoari desobedientzi zibila egiteko modu berri bat da, modu anto-latu eta kolektibo batean, publikoki eta ezbiolentziaren bitartez (ez da soldadu-skaren aurkako beste kanpaina bat). Estrategia hau gastu militarren salaketa egiteko modua da, gaur egungo egoe-ra aldatzea helburu duena.

KUARTELETAN INTSUMISIOA egin nahi duen gazteak, lehenik, kuartelera joan eta egun batzuk igaro behar ditu beste soldaduek bezela; eta behin militar iza-era duenean kuarteletik alde egin. Ondoren, aurkezpen publiko eta kolek-tiboa burutzen da, bere ekintzak moti-bazio ideologikoa duela argi uzteko, ez dela desertore huts bat adierazteko.

Gure desobedientziaren sorburua ejerzitoen desagerpenaren eskakizuna-rekin bat datorrela adierazi nahi dugu, armen erabilera (status quo bat man-tenetze arren edo helburu politikoak lor-tze arren) gaitsetzen dugula, eta baita ere, elkartasun eta justizia gehiagoko giza-eredu baten alde gaudela. Gure nahia, gizarteak nahi eta behar duen defentsa-ereduari buruzko benetako eztabaida sozial bat piztea da, zertaz eta nola defendatu nahi dugun, zein diren gure gizartearen benetako etsaiak.

Desobedientzia zibileko kanpaina be-rrri honen barruan 30 dira Estatu osoan desertatu duten gazteak eta 23, erai-kuntza militarretan ekintzak egin dituz-ten zibilak. Egun hauetako epaiak zibilei egiten zaien lehen guda-kontseiluak diren bitartean 14 dira desertoreei egin zaizkien guda-kontseiluak. Azken hauek 3 urteko espetxe zigorrak jaso dituzte eta beraietako 4 preso dira Alcalá de Henareseko espetxe militarrean.



Usurbilgo Udala
diruz lagundutako
aldizkaria



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak
diruz lagundutako
aldizkaria


Euskal presoak



Euskal Herrira!

Azala:

**Takolo, Pirritx eta Porrotx
Oiarde Kiroldegiko
emanaldian**


ika-mika
**Gero eta erdera gehiago
Usurbilgo elizan**

Azaroaren 20an hileta batean izan nintzen usurbilgo elizan. Zur eta lur gelditu nintzen euskeraz eta erdaraz hasi zenean apaiza, euskaldun jendea besterik ez zegoenean elizan.

Hurrengo egunean, Parroki eguna zen eta han nintzen berriro. Eta hara!, orain ere euskeraz eta erderaz. Meza osoa bi hizkuntzatan, gauza bera bi aldiz entzuten, analfabetoak bagina bezala! Atzoko harridura gaur hasarrea bihurtu zait. Zorioneko elebitasuna!

Inoiz edo behin tokatu zait haurren meza batera ere joatea. Eta haietan ere zer ikusi dut? Meza horietan ere erdara sartzen dutela! Usurbilgo haur guztiak euskaraz hitz egiten badakite. Baina orain erdera

sartzeko aitzakia gurasoak izango dira, ba omen daude eta euskera ez dakitenak. Noski badaudela! Eta martxa honetan, honelako irtenbideekin zertan ikasirik ere ez dute!

Iruditzen zait Usurbilgo elizak euskera kontuan atzera egin duela azken aldi honetan. Mezak elebitasun era horretara planteatzea euskaldunentzat tortura izugarria da, agoantaezina, sekulako zigorra. Ikusten nago, deskuidatuaz gero, zer bertatuko den: erdaraz bakarrik egitea hobe dela erabakiko dute batasunaren izenean. Gaztelera denok ezagutzen dugunez...

Izan ere hori baita bestea. Igandean irakurri zuten eliz-taldeek egindako gogoetan bi komunitade daudela esan zitzaigun, erdal komunitadea eta euskal komunitadea, eta

biak bateratzen lan egin behar duela Usurbilgo elizak. Arraioa! Orain deskubritu al du Usurbilgo elizak Usurbilen "espainolak" eta "euskaldunak" daudela eta mezak bi hizkuntzatan eginez konpondu nahi al du elkarren arteko distantzia hori? Eta bateratzea nahi ez badute zer egin behar zaie, Ebangelioa bi aldiz irakurri, behin euskaraz eta gero erdaraz? Ebangelioa euskaraz eta "kastellanoz" irakurtzeagatik ez zait iruditzen ez kristauago eta ez bateratuago aterako garenik elizatik. Ni behintzat ez, ni aspertuta eta barrutik sutan atera nintzen.

Irakurle, kexarik baduzu, herritarrei zerbait esan nahi badiezu tarte hau da zuretzat aproposa. Atal honetako gutunak ezizenez sinatu daitezkeen arrez Noauak beti jakin behar du nork idatzi duen. Gutunak Noauara bidali edo bertako buzoian utzi. Eskutitzak orrialde erdiak izan behar dute, 1200 karaktere inguruak.


xirrikitutik

Hara, hara, Noaua! aldizkariko korresponaletako batzuk dira eta! Izan ere, pasa den abenduaren 18an aldizkariaren egoitzan bildu, bilera labur-laburra egin eta bapojan zuten Antxetan egindako hamaiketakoan. Hau baino gehiago merezi dutela badakigu, baina tira, eskerrik asko urte osoan egin duzuen lanagatik.


**Pinturas
lon**

Eguberri on!!

943 83 09 37 ☎ 670 397504

Gabon onak pasa!

Zure kirol arropa eta material guztia!

Kale nagusia, 10

Telf.: 943 36 60 50

IGELTSERITZA
URDANTZI, C. B.

 Mugikorra: 649435476
649435476

☎ 943 363370- 361439

TXOKOALDE

Angula urtea

Iñaki Labaka



Ohitura denez, gabonak gehienok familia edo lagun artean igaroko ditugu eta esan behar da eguberriek badutela modu berezian sentiarazten gaituzten xarma bat. Eguberri izpiritu hori, alegia: elkartasuna eta adiskidetasuna, familia giro ederrean pasatzeko egunak baitira hauek.

Eguberritan asko egiten den gauza bat jatea izaten da eta jadanik gainean ditugunez, girotzen joateko agian, abenduaren 11ean Erroizpe Elkartearen barrikotea izan zuten. Giro atseginean nahiko sagardo dastatzeko aukera izan zuen han bildu zenak.

Bazkari edo afari franko izaten ditugun garai honetan, beste

protagonista nagusia angula izaten da. Bere prezioaren inguruan esames ugari sortzen da. Aurten 30.000 pezeta inguru ibiliko da, orain honela dabil, behintzat. Hori aurtengoa, azken urteetako angula harrapaketa onena suertatzen ari delarik.

Abendua hasieratik angula erruz harrapatzen ari dela entzun dugu. Batek hamalau kilo, besteak hemezortzi, bada-go gau batean hogei kilo harrapatu duenik ere. Eta ez gau batean soilik, beste urteetan gertatu ohi den bezala, ia egunero berdin, alajaina! Gabonak ederrak pasako dituzte horiek!

Hori bai, harrapaketa guztiak Orio aldean izan dira. Gure

auzoko zubi ondoan ez dut uste zorte haundirik izan dutenik. Eguraldi oso txarra izan arren, sarritan ikus daitezke zubitik pasatzerakoan argiak gaueko iluntasunean. Anguleroak beren ahaleginetan aritu diren arren, hauentzako urtea berdintsu dihoa. Ea behetik gora angula batzuk pasatzen uzten dituzten!



KALEBERRI

Utopiak?

Jokin Zubiaur



Dagoeneko gehienok jakingo duzue milurte berriaren atarian Usurbil alaituko duenaren berri. Jaialdiaren helburua, "kotilloi" delakoen artifizialtasunik gabe, herri txiki baten berotasunarekin eta horrelako egun seinalatuan Usurbildarrak gehixeago lotzea.

Hasiera batean Euskal Herri mailako festa bat egiteko asmoa zuten. Hori gauzatzea ez denez ahuntzaren gauerdiko eztula, zer egingo eta *Giraldirletako* bat ekartzea otu zitzaion antolatzaileei. Bai entzun duzuen: Sevillan, atleta ez zirenen artera eta mundu osora ere Mayor Oreja jaun txit agurgarriaren politika **eredugarria** bistan jarri zuenetako bat.

Dudarrik gabe, presoan alde egin den ekintzarik egoki eta entzutetsuena.

Horrela, Usurbilgo jaiak arrakasta berarekin egingo zelakoan zeuden. Laster konturatu ziren, ordea, bai Usurbildarrentzat eta baita jaialdiaren onerako ere, lursail txikiagoaren uzta gehiago zaindu eta dastatzen dela, eta horregatik herri mailara mugatu dute.

Iraila edo Urria zen ez dakit, baina, berdin dio; gauza da egin zen lehen bileraren ostean mesfidantzaz erreakzionatu nuela; utopiatzat neukan, eta antolatzaileek ere ondorio berea iritsi direlakoan nago. Hala ere, ez die horrek meriturik kentzen eta usurbildar naizenez,

eskertu egin behar zenbaiten lana.

Utopien bidetik jarraituz...normala da 14 urterekin egonleku bat behar izatea. Nik ere eduki nuen; eta behar izan nuen.

Planteatzen den gaztetxea teorikoki egokia da. Eta praktikan zer? Esperientziak esan dit goiz edo berandu zer gertatzen den. Horregatik oraingoan ere mesfidantzaz hartu nuen berria.

Nerekin ados ez daudenei Juan Luis Zabala azkoitiarraren "Galdu Arte" nobela irakurtzea gomendatzen diet. Bertako gaztetxeaz dihardu.

Azkoitiaraino joan gabe, horixe dituzue herriko adibideak... utopiak.

KALEZAR

Lapurretak auzoan

Joan den abenduaren 11ean, gertaera batzuk eman ziren lehen Udarregiko haurrek erabiltzen zuten erai-kuntzan. Auzotar batzuk gaueko 22:00ak aldera alarmaren soinua sentitu omen zuten, baina, askotan jotzen duenez, ez omen zioten jaramonik egin.

Beste batzuk argiak ikusi omen zituzten, baina ez zioten garrantzirik eman, jende asko ibiltzen baita etxe horretan.

Bai, **lapurrak** sartu ziren. Goiko atea giltzaz ireki eta gohian musika entzuteko aparailu bat ohostu ondoren, beheara jeitsi eta Kalezarko Jai Batzordeko lokalaren atea


hautsi ondoren, sartu eta han zegoen diru apurra eraman zuten. Ez zuten ezer gehiago eramateko denborarik izan.

Jai Batzordeko kide naizenez, hau lotsagarria dela uste dut. Han sartu zenak, erai-kuntza hau ez zuen ezezaguna, beraz, ez da urruti ibiliko. Auzotar zein herritar guztiok

Urko Manterola



erabil ditzazkegun lokalak dira hemengoak. Auzo-lanaren lepora bere poltsikoa bete nahi duenak ez du errespetu askorik merezi, ez horixe!



ATXEGALDE

Ikerketa lanetan

Herri txikia da gurea. Gustora bizi naiz ni txikitatsun honetan, denak ezagun eta asko lagun garen honetan. Etxeko bidea luzea izaten da Usurbilen, beti topatzen baituzu norbait kontu-kontari aritzeko. Izan ere, halako afizioa baitago kontu-kontari aritzeko!

Herri txikia izateak baditu bere alde onak, baina baita txarrak ere. Denak ezagun izate hori ...askotan ito egiten zaitu herri txikiak, zu beti baitzara Braulioaren alaba, Joxepinarene semea edo Joxeren lehengusua. Eta nongoa edo norena zaren ez dakitenean, a ze komeriak! **"Eta zu**

zeinena zara ba?" Zenbatetan entzun ote dugun!

Zein etxetakoa, noren alaba eta noren biloba zaren badakitenean, nonbait aspergarria bihurtzen da kontua eta harago joan beharra dago ikerketa lanetan. Hurrengo galdera: Norekin dabil?

Hauek lanak, hauek! Nabaria bada zein den zure azukre koxkorra, lasai. Baina azukre koxkorrik ez baduzu (ez duzulako aurkitu edo diabetikoa zarela, bost axola), orduan hasten dira arazoak. "Harekin edo honekin ote dabil? Holako mutil puska eta bakarrik?"

Amagoia Mujika



Neska horrek ez dit itxura onik ematen..."

Burutazio sakon hauen ostean ondorio honetara iritsi ohi dira "ikerlariak": Homosexuala da. Eta?

Onar dezaket nire amona zein baserritakoa den jakin nahi izatea, baina nori axola zaizkio nire istorioak?

Olentzero maitea, urte guttian txintxo-txintxo izan naizela eta zera eskatuko dizut:

Albokoaren joera sexuala ez dakitela eta lo ezin eginik dabilzanak, lo lasai egin dezatela. Eskerrik asko.

SANTUENEA

Mari

Oraingo honetan ere, Santuenea auzoaren historia gogorarazi nahian nabil. Lehengoan, gure auzoaren sorrerari buruz idatzi nuen. Oraingo honetan, berriz, Mari eta bere taberna eta dendari buruz idaztea erabaki dut. Mariren inguruko informazioa lortzeko, hoberena berarengana joatea iruditu zitzaidan. Hantxe aurkitu nituen Mari, bere alaba Ramonita eta Migel. Galdera batzuk egin nizkion eta hauxe kontatu zidan:

Mari aiarra, gaztetan etorri zen Santuenera bizitzera. 1955.urtean *Amezketarra* izene-

ko denda-taberna ireki zuen. Geroago, taberna hori *Bar El Maño* deituko zen eta, azkenik, *Tragoxka* taberna bezala ezagutzen zen, gaur egun bezala. Denda ireki zueneko urte horietan, Marik dendaz arduratzen eta, tabernarekin ere, lan ugari izaten zuen. 1968an, senarra hil zitzaion. Bi urte geroago, tabernako denda kendu eta denda bakarrik jarri zuen aurreko etxebizitzan. Urte ugari eman zituen Marik denda horretan. Ni neu ere askotan joan izan naiz ogi bila edo dena delakoa erostera.

Denok dakigu Mari loteria jokalaria amorratua dela eta,

badaezpada ere, dendan ez zen santurik falta, zorte bila edo. Oraindik dendak Mari izena du, nahiz eta Mari bertan ez egon.

Orain dela urte gutxi batzuk, Marik ematen zuen auzoko festetarako diru gehientsuena, beragatik ez balitz, festak askoz ere urriagoak izango ziren. Gaur egun udaletxeak dirulaguntza txiki bat ematen du, baina orain dela urte batzuk ez zuen dirurik ematen, Marik antolatzen zituen festa horiek.

Egia esan, Mari gure auzoarentzako berezia izan da eta eskerrak ematen dizkiogu.

Isaac Muñoz



URDAIAGA

Santuak eta Eguberriak

Esan genezake, gure auzo honetan ohore berezi bat dugula santuari dagokionez. Bai, San Esteban da gure santua, baina, San Esteban "haundi" bata eta San Esteban "txiki" bestea. Bi ditugula esan genezake, beraz.

San Esteban "haundia" (nola-bait esatearren), abuztuaren hasieran ospatzen dugu. Orain, berriz, abenduaren 26an, San Esteban "txiki" eguna ospatuko da gure auzo honetan.

Gainera, gure auzoaren izena Urdaiaga bada ere, nik beti, San Estebangoa naizela esaten dut.

Nik badakit Urdaiaga, auzoari izena ematen dion baserri baten izena dela, baina, nondik dator gure auzoari Urdaiaga edo San Esteban deitzearen arrazoia?

Bestalde, negu giroan sartuak gara eta gabonak ere badatozkigu. Olentzero eta Erregeak Andatzatik behera jeisteko ohitura dute eta gure auzotik ere pasako zaizki-

Alazne Begiristain



gu. Beraz, denok txintxo-txintxo portatzera, laister hemen ditugu eta.

Bukatzeko, Eguberriion guztioi eta ondo pasa jai egun hauek. Ondo bukatu aurtengoa eta hobeto hasi 2000.a.



AGINAGA

Irigaineko basurdeak

Aginagatarrok aspalditik daukagu ezagutza eta lotura Andatza eta Irisasirekin. Orain dela urte batzuk arte, jendea garo eta sutarako egur bila joaten baitzen. Orain, berriz, ehiztariak uso eta oilogorretara eta mendizaleak bueltatxo bat ematera joaten gara.

Olabarrietako erreka aldera aspaldi ez bazarate joan, bidean Irigain deritzon parajeen itxitura batekin topo egingo duzue. Ohituta gaude mendi eta zelaietan ardi edo abereentzako itxiturak ikusten, baina hemen ikusten dena ez da ohikoa, oso altua baita, tratatuta-

ko pinu esolakin egina eta sareez inguratua eta, hori gutxi bada, artzai elektrikoa du barrutik.

Bi hektarea inguru biltzen dituen hesi honen barruko aldean, buelta guztia lokaztuta dago eta hanka markaz josia. Ez da animaliarik ikusten, baina itxura denez, basurdeak daude; Pagoetan harrapatutako basurdeak, 5 eme eta 2 har ugaltzeko asmotan.

Diputazioak gauzatutako proiektu honetan ehiztariak ere parte hartze zuzena dute, beraien baitira eguneroko lana eta janaria emateaz arduratzen direnak, gero, ugaritzen direnean, beste zonalde batzuetan askatu eta ehizatzenko.

Manuel Begiristain



Dagoeneko fruitu onak ematen hasia omen da proiektu hau, bigarren umealdiaren arrastoak ikusten baitira.

Irigainen sortzen diren basurdeekin birpopulatutako parajeetan, ehiztariak ez ote dute duela urte batzuk egiten zutena egingo; denak hil.

Era kontrolatuan ehizatu ezkerok, egian, basurdeak inoren laguntzarik ez lukete behar ugaritzeko.

ZUBIETA

Internet gela

Lanbide Ikastetxean Internet gela dago zabalik azaroaz gero.

Gela horretan hamabi orde nagailu jarri dira bertako ikasle-

en eta herritarren eskuera. Hara doanak Internet mundua gertutik ezagutzeko aukera izango du. Besteak beste, web sarean barrena ibiltzeko, nork bere orriak diseinatzeko, mezu-

laritza elektronikoa baliatzeko, eta gisa horretako zereginetan aritzeko bitartekoak eskaintzen dira.

Ekimenak zenbait

enpresa eta Usurbilgo udalaren babesa eta laguntza jaso ditu. Gela erabili nahi duenak eskolara bertara joan edo 943-376434 telefonora deitu eta txanda hartzea besterik ez du.

Gela zabalik egongo da 9:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 20:00etara. Esan digutenez, 2000. urtean ikastaroak antolatzeko asmoa ere badute gelako arduradunek.

Lastima litzateke halako aukerak ez aprobeztatzea. Beraz, komeni da gela horri bisi-ta egin eta zer dagoen ikustea. Ez lotsarik izan, horretarakoxe egina da eta.

Xabier Arregi



1999 aurrekontuaren 3. kreditu aldaketa

Datorren urteko udaleko aurrekontuak zehazten ari badira ere, urtea amaitu aurretik 1999ko aurrekontuan hirugarren kreditu aldaketa egitea erabaki zuten azaroaren 30eko udalbatzan. Aurrez aurrekontuan zehaztuta zeuden zenbait partida gehitzeko bideratuko da gehienbat kreditu aldaketa honetako dirua, 41.695.572 pezeta hain zuzen ere.

Aurrekontuan bideratutako diru partidak betetzen doazen neurrian, urteko azken kreditu aldaketaren beharra ikusi zuten Euskal Herritarrok taldeko zinegotziek. Horregatik, kreditu aldaketarako proposamen zehatza aurkeztu zuten aldaketaren arrazoiak adieraziz.

Behin proposamena jasorik eta entzunda, 15 eguneko epea jarri zen, aztertu eta beste edozein iritzi jasotzeko. Aipatutako epean beste eritzirik jaso ez zenez kreditu aldaketa aho batez ontzat eman zuten Gobernu Batzordean lehendabizi eta udalbatzan ondoren. Kreditu aldaketa 67.385.116 pezetakoa izango da.

Alde batetik, aurrekontuan aurreikusita zeuden zenbait diru partida gehitzeko egin da kreditu aldaketa. Añarbeko urak ordaintzeko, adibidez, 13 milioi pezeta gehitu dira eta Santuenea inguruko urbanizazioarako 6,7 milioi. Horrez gain,



Txikierdiko lurak erosteko 4 milioi bideratu dira eta parkeen konponketarako 1,5 milioi, bulego materialak, behin behingo ordezkapenak, ikastola eta eskoletako konponketak, Etxealdiako aparkalekua.... Guztira 41.695.572 pezetakoa izan da partiden gehitzea.

Bestalde, partida berriak ere sartu ditu udalak. Besteak beste, Arketa mota desberdinak konpontzeko 4 milioi peze-ta bideratu dituzte, Aginagako frontoiaren proiektua 2 milioi,

1,3 milioi osasun eta seguritate proiektua egiteko, milioi bat Urdaira-benta bideko lur erosketak egiteko eta 1,6 milioi abiadura mugatzeko oztopak erosteko, Txokoaldeko urbanizazioa, Gure Elkartearen ekipamendua... Guztira 25.689.544 pezeta bideratu dira arlo honetan.


Nondik lortu diru hau? Horretarako sarrera berriak kontutan hartu dituzte. Eraikuntza eta instituzio zegetatik 6.683.631, batzbesteko aprobetxamendutik 36.749.518, udal finantza Foru Fondotik 4 milioi eta INEM enplegutik 9,5 milioi pezeta. Horrez gain, beste zerbaitearako bideratuta zegoen dirua aurrekontutik atera dute: Atxegaldeko urbanizaziotik 9 milioi, brigadako automobila erosteko zeuden 1,2 milioi eta artxiboko apalantzako 250.000 pezeta.

Gastuak

- Partida gehitzeak **41.695.572 pezeta**
- Partida berriak **25.689.544 pezeta**
- Sarrerak
- Berriak **10.450.000**
- Kreditu ateratzeak **56.935.116 pezeta**

**TXARO ARTZE
ILEAPAINDEGIA**


Buru-azalaren zainketa
Ile-apainketa



Urte berri
on!

Etxebeste, 3

Tel. 37 16 85



Ekaitz



ZORIONAK!!

Bideo eta Argazkiak

Usurbil

tlf 943 36 14 87

oiartzun

PORTULARRUME



Zorionak eta
urte berri on!

**ITURGINDEGIA
BAINUKO
ALTZARIAK**



Kale nagusia, 2-2-2D
Tlf. Denda 36 46 37
Etxea 36 52 99


Euskal presoak Euskal Herrira

Usurbilgo udala Udalbiltzarekin bat

Behartuta etxetik kanpora
daudenei besarkada bero bat
Gora Euskal Herria Askatuta



**Zorionak usurbildar
guztioi!**



Euskal Presoak



Euskal Herrira



ileapaingintza
manikura
pedikura
depilazioak
masajeak
solarium-a

Intza ileapaindegia
Tlf. 943 36 36 41

% 10aren beherapena 25 urtetik beherako gazteei eta Noaua!ko bazkideei




**TXIRIBOGA
TABERNA**

Urte berri on guztioi!!
Euskal presoak etxera!

Irazu kalea, 3 - tlf. 943 37 00 13

Kribetzi
lentzeria eta perfume denda



Eros ezazu hemen gabonetako oparia!
Aukera zabala!

Zubiaurrenea, 10 Tlf. 943 36 03 37



OSASUNA ETA ESTETIKA

Maite Borda
Medikuntzan eta zirugian lizentziatua

- *Medikuntza orokorra
- *Analisi analitikoak
- *Dieta pertsonalizatuak
- *Gantzen neurketa
- *Mesoterapia
- *Terapia fisikoa
- *Maila txikiko zirurgia
- *Aurpegiko peelinga
- *Liposukzioa

Ola kalea 14 behea, Lasarte-Oria
Torre parkean (Brigidetako parke berrian) Telf. 943 36 06 90

BIDEO IKUSKA



**Filmerik berrienak
aurkituko dituzu**

Disney pelikulak eta
jokoak salgai

Kale Nagusia 25

Telf. 943 37 10 98

MITZAGA HERRIKO TABERNA

AMNISTIA

Askatasunerantz Elkartasunez!



Astebukaeretan bokatak, plater
konbinatuak, pintxo beroak...

Elexpe

Estetika zentroa

Tatuaiak
Betileen trukaketa eta
permanentea
Estetika
Solariuma



Monalurra 2
20170 USURBIL
☎ 943 37 04 62


il e a p a i n d e s



Usurbilgo Tabernarien Elkartea

Ondo pasa gabonak





Urte berri on! Ondo pasa gabonak

g
l
e
a
p
a
i
n
d
e
g
i
a

M
i
x
t
o
a



Solarium, depilazioa,
makilajea eta manikura

Aritzeta 2-2, 1.A Tlf. 943 36 19 51

KAFE

denda

BERASATEGI KAFE DENDA

**Kafea % 100
arabika**


Tea eta kafea hartzeko
tresna, poto eta iragazkiak

Te bereziak:

- * Ceglan
- * Nahaketa ingelesa
- * Earl grey
- * Te berdea
- * Te beltza, Txina
- * Erregaliza...

Ugaldea, 36 Usurbil
Telf. 943 36 53 92

Hipodromo etorb. Lasarte Oria
Telf. 943 36 13 16



TXIMINIA ALTZARIAK



Aizpurua



*Jai hauetan ere zure
mahaia ondo hornituko
dugu!*

Telesforo Ardoak



Kale Nagusia, 25 Telf. 943 36 12 20


Aginagan frontoi estalia egiteko proiektuak egiteko epea ireki da

Aginagako frontoi berriaren egitasmoa gauzatzeko bidean da dagoeneko. Pasa den abenduaren 21ean egin zen udalbatzan, frontoiaren proiektua lehiaketara ateratzea erabaki zuten. Hemendik aurrera proiektuak aurkezteko epe bat izango da, eta ondoren aukeratu beharko dute Aginagako frontoiaren ametsa egiteko duen proiektua.

Proiektua egin gabe bada ere, frontoi berriaren nondik norakoak aurreratu daitezke dagoeneko. Bere kokapena zehazteko arazo bat baino gehiago izan ondoren, azkenean, orain gutxi arte eskola-txikia izandakoa dagoen leku horretan egingo da frontoia. Horrez gain, plazaren zati bat ere hartuko du aginagarrek hainbestetan eskatu duten frontoi estali honek.

Hasiera batean, planoan ikusi daitekeen modura, plazaren zati haundi bat hartzen zuen frontoiak. Eskola txikia izandako eraikuntza bota, plazak dituen hiru laurdenak hartu eta frontoi estalia egitea erabaki zuten. Horrekin batera, eliza zaharra eta frontoiaren artean, ikuskizun desberdinak burutu ahal izateko plataforma bat egiteko asmoa zuten eta honen azpian aldagelak.

Hala ere, azken momentuan, aldaketak izan dira.



Plazari zati txikiagoa kentzeko plataforma hori ez da egingo, eta frontoia eliza zaharretik gertuago egingo dute. Honela, ikuskizun desberdinetarako plataforma hori ez da egingo, eta eliza zaharra eta frontoiaren artean tarte txikiagoa egongo da.

Frontoia egiterakoan plazari zati haundi bat kenduko

bazaito ere, aldamenean, eliz etxearen aurrean dagoen belardiaren zati bat plaza haunditzeko erabiliko da. Beraz, frontoi berriaren egitasmoa egi bihurtzen denean, erabat aldatuko da Aginagako kaxkoa. Frontoiaz gain, parkea ere beste modu batera antolatuta egongo da.

Josu Aranberri

LURDES
FRUTAK
Eguberri eta urte berri on!

Bizkarr
Usurbil

☎ 37 23 68

TXIKILINDO

- G O Z O K I A K -

IZOZKIAK - FRESKAGARRIAK - FRUITU LEHORRAK



Zubiaurrenea, 3

Tel.: 696 851979

Eguberri eta urte berri jai zoriontsuak opa dizkizuegu!



Haur jantziak



Pauma

Kale Nagusia, 2

Tel. 36 59 43

Dena prest dago urtezahar eguneko UEMAren jaialdirako

Azken txanpan sartuak gara. Badira laster lau hilabete hasi ginela eta geroztik gauza asko egin ditugu.

Badugu egitaraua. Ez da erraza izan honezkero eskuartean izango duzuen egitaraua osatzea, eta egitarau lantaldetan badute horren berri, izen asko jarri baitira mahai gainean. **“Upeletan Erronka”** izan da azkenean aukeratua: bi herriren arteko norgehiagoka irudikatzen duen bertso eta dantza saioa da, sagardotegi batean. Egokia iruditu zaigu, horregatik, Usurbilerako. Bertsolarietako bat, gainera, **Andoni Egaña** da (**Anjel Mari Peñagarikano** bestea), jaialdi honetarako berariaz sortu dugun kantaren letra egin duena. Arratsaldeko 17.00etan hasiko da ekitaldi hau, kiroldegian, beste hainbat kanta eta dantza saioen ondoren. **Labrit** eta **Takolo, Pirritx eta Porrotx** ere bertan izango dira, kantaren bere bertsoarekin.

Badugu, esan bezala, kanta ere. **Imanol Urbietak** baietz esan zuenetik Elkarlanean-en grabatzera bi hilabete besterik ez ditugu pasatzen utzi. Hiru bertso gainera, bat helduentzat, bestea haurrentzat eta hirugarren bat gazteentzat. Marka guztiak hautsi ditugu, eta larri ibili bagara ere, egina dago.

Hemendik At!

taldeak hainbat komeria bizi behar izan zuen: epea bukatzeaz zegoenean, grabatzen bukatzen ari zirenean, teknikoak ondoezik jarri eta bertan behera utzi behar izan zuten grabaketa lana.

Estudioan bertan lo egin, eta hurrengo goizean goiz berriro lanera. Studioko ordu luzee-tan, besteak grabatzen ari ziren bitartean, taldeko kide bat hurrengo eguneko azterketako apunteak irakurtzen aritu zen. Ez dakigu gainditu duen.

Ikusiko duzuen hainbat laguntzaile ageri dira txarteletan. Komunikabideen artean Euskaldunon Egunkaria, Argia, Zabalik eta Gara. Hauek denek esan zioten baietz propaganda trukeari eta hurrengo egunotan ikusiko duzuen jaialdiaren berri ematen duen iragarkia beren orrialdeetan. Gainontzeko publizitate euskarriak Pepsi, Keler, Eroski, Fagor, Araeta eta Usurbilgo Tabernarien Elkartek hartu dituzte bere gain. Ekitaldiak

Jaialdiko hiru kantuen CDen zozketa

Badugu jaiaren ikurra, zuhaitza, Usurbilgo armarrarian bezala. Andoni Egañari zor diogu leloa: **“Sustraietatik adarretara, euskara”**. Hortik atera zuen Nagore Leozek jaialdiaren ikurra izango zena, zuhaitza, sustraietatik adarretara irudikatuta. Jaialdiko kantaren hiru bertsoak jasotzen dituen CDa oparitzen dugu txartelean azaltzen den zuhaitza zer zuhaitz mota den asmatzen duten lehenengo 12entzat. Bidali gutunak **Noaia!** aldizkarira (asmatzaille bakoitzeko bat).

ordaintzeko eskuratutako laguntzari dagokionez, berriz, Usurbilgo Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako laguntza eskertu beharrean gaude.

Orain azken txanpa besterik ez da gelditzen: jaialdiaren berri zabaldu, gauzak ondo lotuta utzi, bezperako montaita lanak egin (esan beharrik ez dago egun horretan edonoren laguntza eskertuko dugula) eta, 2000. urtearen atarian, jaialdiaz gozatzea. Jaialdiaren inguruko berri gehiago jakin nahi duenak abenduaren 22an arratsaldeko 7etan Udaletxean egingo den batzar irekian izango du bere berri.

Sustraietatik adarretara, euskara! Eguberri on.

SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA

OSU

Ugaldea poligonoa 36 - 2º Esk
Usurbil - Gipuzkoa

37 19 54

INDUSTRI ETa
IRAGARKI SERIGRAFIA
KAMISETEN INPRIMAKETA



Zapatak, Kanpinak,
Kreamilerak (poltsak,
zamarrak, galtzak...)

ALDAMU

Kale Nagusia, 2 - Tel: 943 37 27 95

Giltzak kopiatzen ditugu



BAYMUE

Etxetresna elektrikoak
Bainugelak,
sukaldeko altzariak eta tresnak
eta opariak



*Eguberri eta
urte berri on!*

Zubiaurrenea, 3 ☎ 36 57 42

Usurbilgo herriak Udalbiltzako kide izateko borondatea azaldu zuten



Pasa den abenduaren 11n Udal hautetsien Biltzarrean, "Udalbiltza"n, sartzeko mozio onartu zen Joxe Martin Sagardia plazan egin zen udalbatzan. Hala ere, ez zen ohiko udalbatza izan.

Herriko ordezkariak "Udalbiltza"n sartzeari baietza eman bazioten ere, herriko talde desberdinek, udaleko hautetsi ohiek eta herritar ugari "Udalbiltza"ren aldeko aldarrikapena berea egin zuten horretarako prestatutako liburu batean. Herriko 27

talde desberdinek (Noaua! Kultur Elkartearen barne), 19 hautetsi ohiek eta 54 herritarrek sinatu zuten beren atxekimendua adierazten duen liburu honetan. Herriko hautetsiek mozioa onartu aurretik eta herriko taldeetako ordezkariak eta herritarrek bere sinadura liburuan eman aurretik, txalapartariak eta dantzariak beren abilezia erakutsi ahal izan zuten Udalbiltza egun honetarako ekitaldi nagusian.

Egun horretan "Udalbiltza"ren aldeko aldarrikapena berea egin ez zuten taldeak

eta herritarrek, oraindik garaiz dabilta, udaletxean baitago atxekimendu liburuak. Idazkaritzan eskatu eta zuk ere zure onespina eman diezaiokezu udalak onartu duen mozio honi.

Ekitaldi hau hasi aurretik, ordea, beste zenbait ekintza sinboliko egin ziren. Goizeko bederatzietan Andatza eta Bordatxo herriko bi mendietan ikurrinak jarri ziren, eta aldi berean suziriak bota ere bai. Horrez gain, goizean goizetik txistularien doinuak ere entzun ahal izan ziren herriko kalee-

25 urtetako lanaren ondoren 6.368 odol emaitza izan dira Usurbilen

Bizitzak ez du preziorik, eta bizitza emateak ere ez. Herrian asko eta asko dira azken 25 urte hauetan era xume batean bizia eman dutenak: odol emaillez hitz egiten ari gara. Mende laurdena pasa da Usurbilen odol emailleen elkarte sortu zenetik, eta denbora horretan 6.368 emaitza izan dira herrian, guztira 2.607 litro odol. Gaur egun urtean sei emanaldi izaten direnez, zuk ere bizia eman dezakezu. Zer da ba 0,4 litro odol ematea?

Ixil-ixilik, txintik atera gabe 25 urte bete ditu Usurbilgo Odol Emailleen Elkartek. 1974. urte arte Donostiara joan behar izaten zen odola ematera, eta **Juste Rekondok** esan digunez ez ziren asko izaten haruntz jotzen ziren usurbildarrak. "Ni behin baino gehiagotan joana nintzen. Horietako batean nongoa nintzen galdetu eta Usurbilen Odol Emailleen Elkarte bat sortuaz herrian bertan odola eman genezakeela esan zidan". Horretarako jende gehiago behar zen, eta Donostiara odola ematera joaten zirenen hiruzpalau izen eman zizkieten. "Hauek orde, ez zuten honetan sartu izan nahi".

Ondoren ea Usurbilen apaiz gazterik ba zegoen galdetu, eta harengana laguntza eske joateko esan zioten Justeri. Benantxio zen apaiz hura. Honela bada, **Juste, Agate eta Miren Rekondo, Benantxio** eta Donostiako Odol Emailleen Elkarteko kide baten lehengusua zen **Mertxe Aizpurua** lanean hasi ziren.

1974ko irailaren 24an egin zuten odol emateari buruzko lehen bilera. Garai hartan honi buruz informazio gutxi zegoen, eta hain garrantzitsua den



eginkizun honen inguruko informazioa herrian zabaltzeko egin zuten lehenengo bilera hura. "Aurrezki Kutxa Munizipalak ekitaldi desberdinak egiteko areto bat bazuen, eta han bildu ginen 45 pertsona inguru. Informazioa eman ondoren odola emateko prest zeudenak zeintzuk ziren galdetu eta 25 pertsona inguruk eman zuten izena". Honela eman zituzten 25 urte hauetako lehen urratsak.

Hasiera hartan urtean emanaldi bakarra izaten zen Usurbilen. Hala ere, pixkanaka-pixkanaka odol emailleen kopurua haundituz joan zen eta era berean odol emanaldiena ere bai. Bat, bi, hiru, lau, bost eta sei. Izan ere, urtean sei emanaldi izaten dira gaur egun Usurbilen. Aurten, adibidez, 322 emaitza izan dira, 54

emaitza inguru aldiko. **Patxi Arruti** elkarteko kidearen arabera inguruko herriekin alderatuz kopuru ona da, baina odola ematen duten gazteak gutxi direla ikusita kezkatuta daude. "Emakumea eta 40 urtetik gorakoa izatea da usurbildar odol emailleen perfla. Duela urte batzuk Gipuzkoako eta Bizkaiko Odol Emailleen Elkartek gazteei zuzendutako kanpaina bat egin zuen, eta urte horretan herrian nabaritu zen gorakada". Beraien esanetan azken urteetan odol emaille berriak ez dira asko izan.

Gazteak odola ematera animatu nahi dituzte, baina ez dute horretarako bitarteko egokirik aurkitzen. "Gazteak odol ematera ekartzeko ez dakigu zer egin. Badirudi odola emateak beldurra ematen diela... ez dakigu zergatik den. Askotan odola ematea zein garrantzitsua den gure inguruko norbaiti zerbait gertatzean jabetzen gara. Badirudi nahikoa odol badagoela, baina gehiago beharko balitz?". Hortxe dago gakoa, odola hartzeko gehienek ez dute inolako arazorik, baina ematen ez bada nondik atera bizi-tzan ezinbestekoa dugun odol

Orain dela 25 urte baino lehen Donostiara joan behar izaten zuten odola ematera

hori? Horixe da Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteko kideek herrian zabaldu nahi duten mezua.

Orain dela 25 urte ez bezala, gaur egun azterketa zorrotzak izaten ditu ateratako odolak. Odola ematerakoan pertsona horrek presioa ondo eduki behar du, tanta bat atera eta ezin duela eman esan diezaio-kete, baina odola eman ondoren egiten dira azterketa nagusiak. *"Emandako odola ondo aztertzen dute, eta hor-tik gaixotasunen bat duela ere esan diezaio-kete odola eman duen bati. Hasiera batean informazio hori elkartera bidal-tzen bazuten ere, gaur egun pertsonalki pertsona horri bidaltzen diote"*. Hala ere odola ematera lehen aldiz etorri eta bitxikeriaren bat ere izan omen dute. *"Badira zer odol mota duten jakiteko odola ematera etorri izan diren pertsonak. Odola ema-tean zer odol mota duten etab. jarriaz txartel bat ema-ten zaie denei, eta batzuk, istripuren bat izanez gero txar-tel hori nahi izaten dute"*.

Tortila patata, ardoa eta ura

Odola eman ondoren indar-rak berreskuratzeko tortilla pa-tata pintxoa eta ardoa edo ura eman ohi dute. Hasiera ba-tean tortila patata pintxoa el-karteko kideek egiten zituzten. *"Tortilak egin eta odol emana-dietara eramaten genituen. Hala ere, abuztuko emanaldi batean bero egiten zuen, eta ez genuen tortila egitera sukal-dera sartzeko adorerik izan. Tortilaren orde zxorizoa eta jamon york eramaten genituen, eta emaile bat kexatu egin zen"*. Orduz geroztik Zendoia tabernak egiten dizkie tortilak, Aizpurua okindegiak ematen die ogia, eta Alkartasuna Kooperatibak ardoa.

Josu Aranberri

Giro bikaina odol emaileen bazkarian



Herriko Odol Emaileen Elkarteak 25 urte bete baditu ere, bada berriagoa den ohitura bat. Azken urtee-tan, hutsik egin gabe, herriko jatetxe batean bazkaltzen dute odol emaileek. Aben-duaren 8an Aginaga Sagardotegian bildu ziren. Ez zen giro Aginaga aldean. Opariak batzuentzat, opariak besteentzat... aurtengo honetan ohikoa baino erre-gali gehiago izan dira.

Izan ere hasieratik elkarte-an izan diren kideetako batzuk berriei lekua utzi diete. Elkartea sortu eta bi

urtera sartu zen **Patxi Arrutik** jarraitzen badu ere, **Agate, Juste eta Miren Rekondok, Begoña Elexpe, Kolumba Aguinaga eta Mertxe Aizpuruak Kattali Arzalluz, Agustina Aristi, Mirari Larreta eta Milari** eman diote leku-koa. Hemendik aurrera odol emanaldiak antolatzeaz eta odol emaileen elkarteko kon-tuez azken hauek arduratuko dira.

Bestalde, odol emaileen bazkarian zozketatzen duten oparia, kafetera bat oraingo-an, **Antoni Bengoetxeari** egokitu zitzaion.



Odol Emaileen Elkarteko kide izandakoak eta sartu diren berriak

AEK Korrika - Aginaga sagardotegia - Agirrezabal estankoa - Aitzaga K.E. - Aitzaga taberna - Aizpurua okindegia - Aizpurua Unanue, Jose (igeltseritza) - Alamanegi jatetxea - Aldamu oinetako konponketak - Aldatz kirol-denda- Alkartasuna kooperatiba - Alkorta harategia- Alual aluminiozko aroztegia - Ana janaridenda - Andatza karrozeria - Andoni pinturak - Andres Bruño e hijos S.L. - Angulas Mayo S.L. - Añorga mertzeria - Antxeta taberna - Araeta sagardotegia - Aranburu landareak - Arantxa akademia - Aranzazistroki, Andres (igeltseritza) - Argiaren lagunak - Argilan elektrotresnak- Arrate taberna - Arruti ardoak - Atxega arrain eta mariskoak - Atxega jatetxea - Bar Usurbil - Baratza frutadenda - Barazar ostatua - Baymue elektrotresnak - Benta taberna - Berantz akademia - Berasategi kafeak - Bereziartua zurgindegia - Bixen ileapaindegia - Bordatxo edaritegia - Caja postal Eusko Alkartasuna - Euskal Herritarrok - Eiza denda - Ekaitz argazki denda - Elduaen hizkuntz eskola - Elexpe ileapaindegia - Elorza Lizaso, Jose Antonio (eskaiola) - Errazkin C.B. (igeltseritza) - Esnaola drogeria - Etxebeste taberna- Euskadiko Kutxa - Eusko Alderdi Jeltzalea - Fernando pinturak - Galarraga garraioak - Gonsabi S.L. (aroztegia) - Gorriti taberna - Ikuska bideodenda- Ikutza aroztegia - Illunbe sagardotegia - Intza ileapaindegia - Ion pinturak - Iosu serigrafia - Ipotx - Irrati pub - Iruin sagardotegia - Izagirre Ibargoien, Mikel (elektrizitatea) - J.R. Ibargoien zurgintza - Juan Materola e hijos S.A. - Juantxo burdindegia - Kalezarra karrozeria - Kima masaje lekua- Kinkildegia - Kribetz lentzeria - Labe-Goxo opil-okindegia - Lanbide eskola - Larrañaga plastikoak - Lasarte-Oriako Batxiler institutua - Lataillade iturgintza - Laurok liburu denda - Lizardi liburudenda - Lurdes frutak - Mahuka jantxidenda - Maite Borda osasun zerbitzua - Manpel - Manso aroztegia - Mapfre aseguruak - Mari janari-denda - Mary okindegia-gozotegia / Rich - May Kar jatetxea - Mikel arrandegia - Mur errozulazioak - Naturgas - N-I ileapaindegia - Noriega Diez, Eugenio - Oiardo kiroldegia - Olasagasti zurgintza - Optika Usurbil - Orbegozo iturgintza - Orbeldi aseguruak - Ostape/Aranguren iturgintza - Patri jatetxea - Pauma haur jantziak - Pello arraindegia- Pikabea agentzia - Portularrume iturgintza - Ramon harategia - Sagasti taberna - Saioa ileapaindegia - Saizar sagardotegia - Saltxipi jatetxea - Sekaña erretegia - Setabu S. L - Tandy - Telesforo ardoak - Tragoxka jatetxea- Truke jantziak - Txapartegi harategia (Aginaga) - Txapartegi harategia (Kaleberri) - Txaro ileapaindegia - Txikiardi autoen garbiketa - Txikilino - Tximinia altzariak - Txiriboga taberna- - Txurrut taberna - Udarregi ikastola - Ugarte erretegia - Unipapel - Urdaira sagardotegia - Urtinea elkarte - Usurbil autoak - Usurbil autoeskola - Usurbilgo Herri Batasuna - Usurbilgo udala - Usurbilgo Hertz Klinika - Usurbilgo Udala - Xabier edaritegia - Xabi janaridenda - Zabalea nekazal turismoa - Zendoia-enea taberna - Zubeldia kirolak - Zumeta jatetxea



Takolo, Pirritx eta Porrotx Usurbilgo hondartzan izan ziren

Usurbilek hondartzarik ez duela? Nork esan du hori! Galdetu, galdetu herriko haurrei, beraiak ondo asko zekiten non zegoen hondartza. Gainera, ba al dakizue nortzuk ikusi zituzten hondartzan abenduaren 19an? Takolo, Pirritx eta Porrotx paila-zoak! A ze festa antolatu


zuten! Euria gogotik ari bazuen ere, bainu jantziak jarri, eta kontu kantari ibili ziren ordu bete eta 15 minutuz.

Arrakasta itzela izan zuten gainera. Takolo, Pirritx eta Porrotxek arratsaldeko bostetarako etorriko zirela esan, eta umeak eta beren gurasoak lau t'erdietarako zain zeuden

hondar gainean eserita. Hondartza bete-bete zegoen, udaran Donostiako Ondarreta hondartza egoten den moduan. Tarrapatata pirata, olagarroa, telefonoa... udaran hondartzan ikusten ez dituzten pertsonaiak ikusi zituzten. Ez duzuela sinisten? Katxiporreta, ikusi argazkiak eta jan yogur!



KIROLAK



MODA

ASTORE
ADIDAS
REEBOK

NIKE
JOHN SMITH
JHAYEER

LIBERTO
SHECHERS
KARHU...

Errealeko produktuak %10eko beharapenarekin.

Telf.: 943 366542

Urte Berri On!!



Angulas Mayozi, s.l.

Aginagako angulak
Angula-haztegi propioak

Ondo pasa
San Praixkuak!

Toki-berri, z/g
Aginaga
Tlf.: 943 36 15 9



INFORMATIKA IKASTAROAK USURBILEN

• **EDUKIAK:**

WINDOWS 98
WORD
EXCEL
ACCESS
INTERNET

• **TALDE TXIKIAK**
• **ORDUTEGI EZBERDINAK**
(Astelehenetik larunbatera)

IZENA EMATEKO EPEA: Urtarrilak 7

KALE NAGUSIA, 10- behea. Tlf. 943 366 818 / 362 141
ARANTXA@es.ceac.com

BERANTZ AKADEMIA

Lehen Hezkuntza

D.B.H.

Batxilergoa

Heziketa zikloak

Ingelesa

Frantsesa

Euskara

Kontabilitatea, Estatistika

Ikastaro desberdinak ere ziurtatzen dira, hala nola: salmenta teknikak, telemarketing-a eta abar.

Zorionak eta urte berri on!



San Esteban kalea 14, USURBIL

Telefonoa: 943 37 32 95

ZUMETA JATETXEA



Zorionak eta
urte berri on
usurbildar
guztioi!


Txokoalde III. 943 36 27 13

ZUMETA MENUAK (Gutxienez 2 laguntzat)

- Etxeko ahate foie-a aran pasa eta pattarraz.
- Itsaski entsalada hozbero trufa zaporez.
- Zapo txangurroz beterik eta itsaski saltsaz
- Aspizuna patata pure, onddo eta piliko piperraz haragi saltsetan.
- Etxeko azkenburukoen dastapena
- Ogia eta kafea 3.675 pzt. (pertsonako)



Ondo pasa itzazue
eguberri festa
hauek!



Txanpaina hozten
jarria daukagu!

EUSKAL HERRIA
abertzale
eta
ezkertzalea



Euskal demokrazia Euskal Herriarentzat!

Preso eta errefuxiatuak etxera!

Indar zapaltzaileak kanpora!

Osasuna eta askatasuna
Usurbilgo Herri Batasuna




USURBIL
OPTIKA

Ana Perez Telletxea

- OPTIKO
- ORTOMETRISTA
- AUDIOPROTESISTA
- KONTAKTOLOGA

Gabonetako
opariak egiteko
aukera zabala

Zubiaurrenea 10
Telf. eta faxa
943 37 02 69



**KILLER
LOOP**



ZURE AMETSÉTAKO
KILLER LOOP-AR
EROS EZAZU
ÉTA ERAMAN ESKULARRU
HAUEK OPARITZAT



Eguzkitako
betaurrekoak
prezio erdian

**ERREGE
BAT
BEZALA
GELDITU.
OPARITU
EGUZKIA.**



GIORGIO ARMANI
Bravo Brutto
bytior
bollé
CARRERA
EASSUN
LOOK
OCCHIALI
INDO

Christian Dior
paco rabanne
STING
NINA RICCI
JESUS MONTAÑANT
VOGART
Ray-Ban



**EAJ
PNV**

**Usurbilgo Eusko Alderdi
Jeltzaleak 2000. urte baketsua
opa dizue
Eguberrion!!**



Usurbil Autoak S.C.L. Zerbitzu Ofiziala



*Gabon jai
zoriontsuak
opa dizkizuegu*



Zumartegi industrialdea
Aitzetzarra kalea, 1


Telf. 943 36 10 79

Egin zaitez Noaua!ko bazkide

Gabonetan besteek baino merkeago afaldu edo bazkaldu eta eros ditzazkezu opariak

Antxeta jatetxea
Patri jatetxea
Zumeta jatetxea

2.500 pezetatik
gorako otor-
dua eginez
gero %10eko
deskontua



Aldatz kioldenda
Mahuka
jantxidenda
Pauma Haur jantziak
Truke jantxidenda
Usurbil optika
denda
Intza ileapaindegia

%10eko beherapena



Eguberritako xextuaren zozketa

Hemen da dagoeneko eguberritako gure zozketa mundiala. Xextu horretan beste zozketa haundi horietan egon ohi diren produktu garestiak ez dituzu ikusiko, baina zeinek ez luke herriko produktuez osatutako xextu eder hau hartuko? Gabonak pasa ondoren jan eta edateko gogorik baduzue hona hemen Noaua! Kultur Elkarteak bere bazkide eta aldizkarian publizitatea egiten dutenei eskaintzen dien aukera paregabea. Urtarriaren 3an goiko hori bezalako hiru xextu zozketatuko ditugu.

Xextu horietako bat publizitatea egiten duzuenon artean banatuko dugu. Zozketa eguna baino lehen zenbaki bana bidaliko zaizue, eta zuen

zenbakia tokatzen bada... ba horixe, xextua zuretzat. Beste biak berriz, bazkideentzat izango dira. Zuen bazkide zenbakiak zortea eman diezazueke.

Xexto bakoitzean produktu hauek daude:

Saizarko sagardoa eta Belmont sagardoz-a, Kandido ardoa, Markel Olaizolaren etxeko patxarana, Joxe Mari Arrutiren txorizoak, Galardiko babarrunak, Joxe Mari

Alduntzinen eztria, Juan Joxe Arrospideren onttoak, Aitzagako txanpaina, Andres Bruño e Hijos-en mariskoa, Agiña piperrak eta Angulas Aginaga gula.



2.000. urteko egutegia zuentzat

Hona hemen 2.000. urteko egutegia. Urteroko ohiturari jarraituz, aurten ere kontu haundiz prestatu dugu datoren urteko egutegia. Herriko jai, egun eta ekitaldi garrantzitsuenak bildu, argazkiak aukeratu eta aurrera, 2.000. urtean sartu baino lehen zuen etxeetan izango da.

Mertxe Gonzalez eta Zaloa Arnaizek diseinatu dute aurten goa, baita dotore diseinatu ere! Zuir hemendik aurrera Usurbilgo sukalde eta txoko guztietan ez dela faltako Noaua!ko egutegirik. Guk, behintzat, hala espero dugu. Bitartean, 99a agortu ahalik eta hoberen eta URTE BERRI ON.



Eskuetan duzuen hauxe da 1999ko azken alea. 2000. urtearekin batera, langostinoak, angulak, txuleetak eta mazapanak jan ondoren berriz ere indarberri turik iritsiko da Noaua! aldizkaria zuen etxeetara. Orduan izango duzue 2000. efektuaren berri: koloreak, erreportaia dotoreak, maketazio alaketak... urtarriaren 14an Noaua! aldizkaria eskuetan duzuenen ohartuko zarete. Gabonak ondo pasa eta urteberri on guztio!



BAZKIDE TXARTTEA

5.000 PEZETA URTE OSORAKO



Izena: _____
 1. Abizena: _____
 2. Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Tfnoa: _____
 Kontu Korrontea (20 digito): _____

462

bazkide ditu Noaua!k.

Zu ere egin zaitez

bazkide

Gabon zoriontsuak pasa

Esnaola

Usaindegia

Ondo igaro festak!

Zubiaurrenea, 3
Tlf: 36 25 55



Kale nagusia, 2
Fax : 36 60 21

mota guztietako errotuloak

IBILGAILUAK - ERAKUSTOKIAK

PANKARTAK - KARTELAK ...

Urte berri on!!

OLARDO
UDAL KIROLDEGIA

URTE BERRI ON!!



USURBIL
TLF.: 943 37 24 98

Solarium
Depilazioa

Peluqueria
Ileapaindegia

Hemendik aurrera
aurretik ordua eskatu!!

**Zorionak eta
Urte Berri on!!**

NAGUSIA, 2 - Tlf 943 37 28 44
USURBIL

USURBIL
KIROLDEGIKO
TABERNA ALOKATZEN DA.

Telf.: 943 37 24 98

ALBORTA

HARATEGIA

Ondo ibili
Gabon jaietan!

Atxega Alde, 34
Usurbil ☎ 36 57 42

Zorionak


ARRANDEGIA
MIKEL

Gaztañazpi, 1 - Tel.: 36 63 56
USURBIL



URTE BERRI ON!!

ARGILAN

Etxetresna elektrikoak

Eguberri
zoriontsuak
opa dizkizuegu

Kontzeju zaharra, 13
Usurbil ☎ 36 13 80

ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009


ESTRELLA
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak
zure zerbitzurako

Zubiaurrenea, 10
Tlf. 943 37 18 07 - Fax.: 943 37 63 41



SAIOA

ILEAPAINDEGIA



Solarium zerbitzua Betileen tintaketa
Depilazioa

Beherapenak gazteei eta jubilatuei

Kalezar

☎ 94337 29 52

BAR

USURBIL

Pintxo eta bokata
goxo-goxoak
Eguberri On!!

Eguzkitza

RAMON

HARATEGIA

Eguberri eta urte
berri jai
zoriontsuak opa
dizkizuegu!



Eguzkitza, 6 ☎ 36 29 70



Kale Nagusia, 9
Tlf. 943 37 33 48
943 37 09 13

USURBIL



Eguberri eta
urte berri on!

ETXEESTE

JATETXEA

EGUNEKO BAZKARIAK

Aginaga (Usurbil) Tel. 36 27 40

Batera plataformaren ekitaldiak

Herrian bada sortu berria den talde bat, Amnistiaren Aldeko Batzordea, EAJ, EA, EH, ELA, Elkarki, LAB, Gure Artera Bilgunea eta Senideak taldeek osatzen dute Usurbilgo Batera plataforma. Euskal preso politikoaren aldeko mobilizazioak eginen hasi dira abenduan, eta urtea amaitu baino lehen, urtezahar egunean egingo den manifestazio ixilerako gonbidapena luzatzen dizuete herritar guztioi.

“Batera” taldea aldarrikapen zehatz batzuk kaleratzeko sortu da. Orain dela urtebete, euskal presoaren egoera larria leuntzeko eskatuz hainbat mobilizazio aurrera eramán ziren herrian eta Euskal Herri osoan, baina urtebete igaro ondoren gauzak bere horretan daude. 1998ko azaroaren 28an manifestazio erraldoia egin zen Bilbon eta gure herrian, aurrez aipatu ditugun taldeen atxeki-



menduarekin manifestazio ixilak herriko kaleak zeharkatu zituen urtezahar egunean.

Hala ere, euskal gizarteak, ixilean nahiz oihuka, ozen eskatu duena ez dute entzun nahi izan: presoak sakabana-tuta segitzen dute, eta gainera, horietako hogeit hamar presoek duten protesta-mota bakantakoari ekinez gose greban daude. Aspaldian kalean

behar zutenak espetxean darrate, gaixotasun larriak jota daudenak berriz, ez dituzte etxerutzen.

Abenduaren 3an hasi ziren konzentrazioekin, eta abenduaren 17an ere frontoi atzean bildu ziren euskal presoaren eskubideen aldeko aldarrikapena eginez. Gabonetarako ere hainbat mobilizazio aurrerakusi dituzte. Abenduaren 24an, gabon gauean, iazkoaren modura arratsaldeko 19.00ak aldera Amnistiaren Aldeko Batzordearen olentzero eta parroikiko taldearen jaiotza frontoian elkartu, eta presoaren aldeko ekitaldi berezi batekin amaiera emango diote gabon gaueko kantaldiari. Abenduaren 31an berriz, Batera osatzen duten taldeek deiturik, herriko kaleetan zehar manifestazio ixila egingo da. Arratsaldeko 20.00ak aldera emango zaio hasiera manifestazioari herriko frontoian.



gorriti
EDARITEGIA

kafe berezia

San Esteban kalea, 8
TLF 36 27 70



20170
USURBIL

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA



Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

URTE BERRI ON!!



Xabier Aranburu aislamendu zeldan

Xabier Aranburu "Xomorro" eta Herrera de la Manchán dauden beste 14 preso politikoak aislamendu zeldetan daude pasa den abenduaren 13az geroztik. Egun horretan amnistia eskatuz ordu eta erdiko protesta egin zuten. Euskal Herrian ireki den prozesu politikoan parte hartu ahal izateko amnistia eskatzeaz gain, gose greban zauden presoekiko elkartzuna agertu zuten. Abenduko protesta honen ondorioz aislamendu zeldetan sartu dituzte.



Pasa den abenduaren 10ean Kutxa fundazioak ikasketa-amaierako sariak banatu zituen. Aurtengo ikasturtean unibertsitate ikasketetan nota onenak atera dituzten 22 ikasleak saritu dituzte, eta **Paco Rábano** usurbildarra (goian ezkerretan) izan da horietako bat. Pacok Injineritza Tekniko Industrial ikasketak amaitu ditu aurten (Erasmus bekarekin Holandan amaitu zuen ikasturtea), eta nota ezin hobekak atera dituenez diploma bat eta diru sari bat eman dizkio Kutxa Fundazioak.

Euskaraz leitu eta eskribitzeko ikastaroa

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) eta AEK-k elkarlanean "Euskaraz leitu eta eskribitzeko" ikastaroa antolatu dute. Ikastaro, hau bereziki, UEMAn barruan dauden herrietako hautetsiei zuzenduta dago. Honen bidez, alkate eta zinegotziek euskaraz jarduteko eragozpenik ez izatea da lortu nahi dutena. Hautetsiez gain, herritarrek ere parte hartu ahal izango dute eta horretarako urtarrilaren 14a baino lehen eman beharko da izena.



Juan Jose Ibarretxe EAEko lehendakariak erakunde eta administrazio publikoetan konzentratzeko egin zuen deiarekin bat egin zuten EAJ, H.B, PSE-EE, PP eta IUK. Deialdiari erantzunez, bost minutuko isilunearekin konzentrazioa egin zen pasa den abenduaren 3an udaletxe aurrean. Han bildu ziren alderdi politiko desberdinetako ordezkariak eta hainbat herritar. E.Heko ordezkariak "Bakea eraikitzen Euskal Herriak du hitza eta erabakia" leloa zuen pankarta eduki zuten eskuartean.



Eguraldiari kasorik egin gabe Santo Tomas festa ospatu zen pasa den abenduaren 19an herriko frontoian. Barruak berotzeko, eguraldiak horrela eskatzen zuen eta, txistorra, taloa eta gaztainak jateko aukera izan zuten bertara gerturatu ziren guztiek. Bazkari legea egin, tonbolan parte hartu... gabonak gainean ditugula gogora arazi ziguten Ziortza Gazte Elkartekoek. Horrez gain herriko txistulariek Santa Sezili egunean eman behar zuten kontzertua eskaini zuten

TXURRUT EDARITEGIA

Urte berri on!!



Giro eta musika atsegina!

San Esteban kalea, 1
Tel: 943 36 00 80

JOSE AIZPURUA UNANUE

Igeltseritza eta pintura

Teilatuen berritzea

Fatxaden konponketa



Pintore kalea, 1 - 3.A
LASARTE-ORIA
Tel.: 36 17 83

Muna Lurra, 20 - I.E
USURBIL
Tel.: 943 36 37 67

Dirua gastatu beharra ezinbestekoa den garaia iritsi da: gabonak

Nola aldatzen diren gauzak! Dena aldatu da, dena da desberdina, eta noski, gabonak ere ez dira garai batekoak. Zorioneko kontsumoa, zorioneko gastatu beharra... dena aldatu da. Herriko denda eta tabernetan behintzat nabarmentzen dute gabonen eragina. Herriko dendari gehienek urte sasoi honetan izaten dute lan gehien. Gabonetan opariak egin, ondo jan eta edatea gauza normala da. Gabonak aizue! eskerrak urtean behin izaten diren bestela...



“Errege eguna baino egun batzuk lehenago egiten ditut salmenta haundienak”

Miren Maioz
Mahuka jantzi denda

Gabonetan salmenta kopurua haunditzen al da?

Errege eguna baino egun batzuk lehenago salmentak asko haunditzen dira hemen. Normalean baino 10 aldiz gehiago saltzen da egun gutxi batzutan. Ez da oraingo zerbait, aspalditik gertatu izan zait hau eta urtero berdina errepikatzen da.

Eta olentzerotan ez da gehiago saltzen?

Hemen ez. Umeentzat jostailuak etab. erosten dira egun horretarako, baina helduentzat diren opariak errege egunerako uzten dira. Lehengo usadioa mantentzen da oraindik eta erropa errege egunean oparitzeko saltzen da gehien bat.

Jendeak zer erosten du?

Jendeak 5.000-6.000 pezetako opariak egiten ditu. Normalki jendea jertzeak erostera joaten da zuzenean. Hala ere, galtzak ere saltzen dira egun hauetan. 14-17 urtekoak berriz, poltsa txikiak, gerrikoak... gauza txikiak erosten dituzte.

Garbera bezalako hipermerkatu haundien eragina nabaritzen da?

Nik uste dut baietz, eta Asteasuainen Eroski irekitzean gehiago nabarmenduko da. Hauetan erosteketa desberdinak egin ditzazkezu leku berean, eta gainera busti gabe.

TABERNA
Bazkariak eta afariak
Santuenea 23
Tf. 9433627 34

PINTURAK
FERNANDO

Bizkarre, 6 Usurbil
Tlf. 943 36 60 19 / 36 34 60

Sintasola,
moketa,
kortxoak eta
tarima
jartzen dira



AGIRREZABAL
estankoa

Jai zoriontsuak
surbildar guztio

Kale nagusia, 27
Telefona: 36 11 10



“Jostailuen salmenta asko jeitsi da”

Patxi Borda
Laurok

Gabonetan gehiago saltzen al duzue?

Urtean zehar baino gehiago, baina ez lehen bezala. Salmenta asko jeitsi da azken urteetan eta gaur egungo hipermerkatu haundien eragina asko nabarmentzen da. Lehen jendea ez zen askotan joaten kanpora erosketak egitera, aukerarik ez baitzegoen. Orain arratsaldea pasatzera joan eta guztia eros dezakezu.

Zer da gabonetan gehien saltzen dena?

Jostailu txikiak. Konpromezuetarako jostailuak erosten dira hemen, hilobarentzat, lehengusuentzat. Kuriosoa da, baina Laurokera datorren jendeak zer erosi behar duen ez du pentsatuta ekartzen. Jostailu haundiak erostera kanpora doaz, txikiak, detaileak berriz, hemen erosten dituzte

Olentzero edo erregeak nagusi?

Oraindik erregeak dira nagusi. Euskal familiek, erdaldunak baino gehiago, olentzero egunerako joera dute, baina beti ere erregeak ahaztu gabe. Errege egunerako gehiago saltzen da, diferentzia haundiz gainera.



“Txuletak, arkumea eta solomiloa nagusi”

M^a Luisa Alustiza
Alkorta Harategia

Gabonetan desberdin jaten al dugu usurbildarrok?

Gabonak direla nabaritzen da. Jendeak txuletak, solomiloa, baserriko oilaskoa eta arkumea erosten ditu gehien. Urtean zehar ere saltzen dira, baina gabonetan gehiago.

Jende gehiago etorri ohi da harategira?

Jende gehiago ez. Atxegaldeko jendea askotan gurasoen etxera joaten da afaltzera. Hala ere, gelditzen direnek aurrez aipatutako jakiak erosten dituzte.

Normalean urtean zehar saltzen ez den produkturik eskatzen al dute bezeroek?

Tartean-tartean indioilarra edo faisana eskatzen dute, baina hemen behintzat hоек erosteko ohiturik ez dago. Urdaitègia aldetik berriz, jendeak urdaiazpiko ona erosten du egun hauetarako eta pateaa ere saldu ohi da.



“Gabonetan konbinatu asko edaten dira”

Oskar Uribe
Txiriboga taberna

Tabernarien ordutegia aldatzen al da gabonetan?

Jai egunak direnez ordutegia luzatu ohi da. Jende gehiago ibiltzen da eta urtezahar gauean adibidez beranduago ixten dugu. Lehen gabon gauean ere irekitzen genuen, baina azken bi urtetan ez dugu lanik egin.

Noiz izaten duzue lan gehien?

Abenduaren 24an eta 31n afaltzera joan aurretik jende asko ibiltzen da poteoan. Bestalde, urtezahar gauean ere lan gehiago izaten dugu, jende gehiena afaldu ondoren kalera irtetzen baita.

Zer edaten du jendeak?

Gabonetan jendeak ez du ohikoa edaten. Gauean behintzat urtean zehar edaten dena alde batera utzi eta konbinatuak edaten dira gehien bat. Ez da oraingo kontua, lehen ere berdina egiten zuen jendeak.



Jai zoriontsuak!

ZORIONAK eta



Etxebeste kalea, 9
20170 Usurbil



URTE BERRI
ON!!

MAPFRE
ASEGURUAK
Ana Olasagasti



ARRANDEGIA
PELLO




Eguberri eta urte berri
jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!

Arizeta, 1 / Tlf. 36 21 64

Tlf. 943 36 00 83



Karmele Zubeldia



Ama

Irakaslea
(Hezkuntza premia berezietan)

Eguberriak

**Horra, horra gure olentzero!
Pipa orztian dula eserita dago
Kapoiak ere...**

Neguko hotzarekin batera aurtengoan ere iritsi zaizkigu. Urtero ohi den legez gabon giroak berarekin dakar ospakizuna eta festa. Urtearen amaierako egun hauetan herri ohituretan ospakizun desberdinak nahasten dira. Batzuk aintzinatik datozenak, besteak berriz Kristautasunak sortuak. Urte amaiera eta berriaren hasierarekin batera Kristautasunak Jesusen jaiotza ospatzen du. Ugariak dira ikatzari, egurrari, urariko... loturiko ohiturak:

**Ur goiena, ur barrena
urte berri egun ona!**

Pertsoniak ere hor ageri dira: Olentzero, hiru erregeak:

**Trakatan, trakatan hiru errege
trakatan, trakatan Belenera
Trakatan Meltxorrek...**

Hiru erregeek, Meltxor, Gaspar eta Baltasarrek Jesus haurtxoa gurtzen dute. Olentzerok Gabon gauaren berria ematen du.

Orain artean ez dut uste ezer berririk kontatu dizuedanik.

Bainan azken urte hauetan eguberriak iristen direnean bada harritzen nauen zerbait: toki guztietan barrena dabil; eskaparate apainduetan, postal zein liburuetan, Euskal Telebistan ere ikusi izan dut. Galdezka ibili ondoren zera esan didate: aguretxo bizar zuri eta jantzi gorriduna Noel, Papa Noel edo Santa Klus dela.

Baina, nondik azaldu ote da? Nik ez dut haren izena daraman abestirik ez olerkirik ezagutzen. Niri behintzat zeharo arrotza egiten zait. Bada hala ere Olentzero ikazkina baino dotoreagoa dela dioenik. Kontuak kontu, gero eta indar gehiago hartzen ari da Eguberri garaitan.

Ez ditut Olentzero, Hiru erregeak eta Gizon gorritxoak lehia batean jarriko. Aitzitik, aurtengoatik denak batera elkartu eta oparirik ekartzekotan bat bakarra eskatuko nieke: Euskal Presoak etxera!!

**Hator Hator mutil etxera
gaziainak ximelak jatera
Gabon gaua ospatuzeko
aitaren ta amaren ondoan...**





Bertsoak

UEMaren urtezahar eguneko festa dela eta, euskararen omenez

Euskal Herriko herrialdetan euskara gaixorik dabil hiriburutan negar dario aurpegia dauka zurbil iparraldean ez ote dago heriotik oso hurbil? zaindu dezagun momentu oro besotan ez dakigun hil lanak eginez inurriak lez txintxo-txintxo eta umil.

Euskararentzat oraingoz ez da ez bake ta ez justizi bere etxean maizter daukate hori ez al da minbizi? Beharko da bai oinarri sendoz finkatzea lendabizi ahaleginak ez daiten falta lan eiteko bizi-bizi euskaldun jaio euskaldun hazi euskaraz gaitezen bizi.

Festa eder hau zertan datza arrazoia da zehatza zuzpertz eta jorratu nahi da euskaldun baratza eginkizuna da latza beharko piper ta gatza gaurkoan behintzat ez bedi falta bertso eta dantza

Xabier Aranburu "Xomorro"
Herrera de la Manchako espetxetik

Lehiaketa




Nola izena du baserri honek?

Asmatzaileen artean Patri tabernan bi pertsonentzako afaria zozketatuko dugu.

Badirudi gabonetarako opariak banatu nahian gabiltzala. Azken aleko galdera erantzutea behintzat ez zen oso zaila eta jendeak erantzun mordo bat bidali ditu. Zein baserri zen argazki hura? Andrenagusi, noski. **Andrenagusi** baserria ezagutuko ez duzue ba! Baina tira, horrelakoa da gure zozketa. Ondo erantzun duzuen artean zozketa egin dugu, eta saria ezin denok jaso. **Pilar San Juanek** izango du Tragoxkan afaltzeko aukera. Zorionak!

Gabonak giro onean pasatzeko!!



Igandetan ganba-ziri mundialak!

Laurok

Liburudenda
Fotokopiak



Fax serbitzua

Ezteietarako gonbiteak



Koadernaketak

A genda

ABENDUAK 24 larunbata

- Parrokiko taldeak urtero antolatzen duen **jaiotzarekin kantari** aterako dira parroki aurretik arratsaldeko 16.00ak aldera.
- Amnistiaren Aldeko Batzordeak antolatuta **Olentzerorekin kantari** irtengo dira frontoitik arratsaldeko 17.00ak aldera.
- Bi taldeak frontoian elkartuko dira arratsaldeko **19.00ak aldera euskal presoen aldeko ekitaldi bat** egiteko.

ABENDUAK 26 igandea

- **San Esteban txiki eguna** ospatuko dute Urdaiagan goiz partean. Meza nagusiaren ondoren hamaiketako eta zenbait opariren zozketa izango da trikitilarietako ondo lagunduta.

ABENDUAK 29 asteazkena

Gazte eguna Usurbilen.

- Gaztetxearen aldeko gazte taldeak, ekimen honi bultzadaxo bat eman nahian, gazte eguna antolatu du. Indarrak hartzeko bazkaria egingo dute lehendabiziko frontoian.
Bazkaria: makarroiak, oilaskoa patatekin, gazta, menbriloa eta intxaurrek eta kafea. (600 pezeta).
Bazkalondoren **jokuak.**

Ondoren **tortilla txapelketa** eta prestatutakoarekin afaria. Eguna amaitzeko **trikitixarekin festa galanta.**

ABENDUAK 31 ostirala

- Egun guztian zehar eta gauetara ere bai noski, Urtezahar eguneko jaialdiko egitarau zabalaz gozatzeko aukera izango da.

URTARRILAK 6 osteguna

- **Erregeen pajea** herriko haurren eskutitzak hartzea etorriko da frontoira eguerdiko 12.00ak aldera.
Arratsaldeko 18.00etan Urdaiagatik **Hiru erregeen kabalgatari hasiera** emango zaio. Frontoira arratsaldeko 19.30ak aldera iritsiko dira.

OHARRAK

- ✓ Atxegalden **Xabi janaridenda alokatzen da.** Interesatuak deitu 943-370835 telefonora.
- ✓ Azaroaren 22an arratsaldeko 19.00ak aldera tolestatzen den **haur aulkia galdu zitzaigun** eliza eta Patri tabernako izkiran. Haur aulkia jaso zuenak telefono hauetara deitu: 943 361235 edo 943 366014.

URTEZAHAR EGUNeko JAIA

10:00etan hasita **AZOKA IREKIA** eguerdiko 14:00ak arte. Baserritarrak, artisauak, abereak, erakusketak, antzerkia, trikitilariak, herri-kirolak... Azoka irekia da eta edonork har dezake parte.

11:00etan Udarregi Ikastolako haurren desfilea azokaren gunetik kiroldegira.

11:20etan Udarregi Ikastolako haurren antzerkia kiroldegian.

11:45etan Olentzeroren etorrera kiroldegian

12:00etan Ixabel Agirresaroberen "Pantxikaren Atlasa" haurrentzako ikuskizuna kiroldegian.

Jon Bergaretxe kantautorea kiroldegian.

12:30etan Olentzeroren ibilbidea, kiroldegitik Azokara.

12:30etan Peñagarikano eta Txapartegi aizkolariak aurrez aurre.

13:00etan harrijasotzaileak: Perurena eta bere semearen erakustaldia.

16:00etan idi-dema: Joxemari Mendiluzeren idiak eta Txomin Alkortaorenak aurrez aurre.

17:00etan ikuskizuna kiroldegian (500 pzt.):

- Andoni Egañak eta Imanol Urbietak jaialdiko sortutako abestiaren emanaldia, Takolo, Pirritx eta Porrotx, Labrit eta Egañaren eskutik.

- Dantzariak: Orre dantza taldea.

- "Upeletan Erronka", Egaña eta Peñagarikano bertsolariekin eta dantzariekin.

18:00etan frontoian Izotz taldea.

19:00etan Labrit kantautorea kiroldegian.

Bertso poteoa, bertsolari, trikitilari, txistulari eta abeslariak.

0:00etan kanpaikadak, txalapartaz lagunduta.

0:30etan frontoian Izotz taldea.

1:00etan Kantariak eta musika kiroldegiko tabernan.

"Itsas Begira" erakusketa ikusgai izango da Udarregi zaharrean urtarrilaren 15etik aurrera. Bertan, itsasontzien maketak, garai bateko untzi olei buruzko informazioa eta Gregorio Arbeloaren margoak ikusi ahal izango dira.

ZENDOIA-ENEAT TABERNA

Goizeko 7etatik irekia
Gosariak, hamaiketakoak,
eguneroko menuak eta
bokatak

Gabonetan ere
agur berezi bat
herrian ez daudenei!



Kale Nagusia, 25

Tlf. 36 25 60

TABERNA-JATETXEA



ANTAXETA

EGUZKITZA, 4
20.170 USURBIL

TEL: 37 03 44

LIZARDI

LIBURUGENDA

Zure oparietarako



Zorionak
eta urte
berri on!

K/ Etxebeste, 1

Tel. 36 11 15

A. BRUÑO E HIJOS S.L.

ANGULAK ETA ITSASKIAK



Menu ezberdinetako aurrekontuak egiten ditugu.


Egin ezazu zure eskaera telefonoz

☎ 943 37.27.88 USURBIL
Legarde Kaleko Zumartegi

* Gabonetan ere mariskada berezia
bi pertsonentzan

Kamaroiak -
Langostinoak -
Karakelak -
Nekorak -
Lanpernak -
Buia -
Zentolloa -
Mixera -
Ardo Txuria -

7.000 pta



MAHUKA

Gabonetako eskaintza bereziak!!

Aukera zabala gizon nahiz emakumeentzat
Etor zaitez eta probatu lasai nahi duzun guztia!
Hemen duzu zure oparia erosteko aukera



**Larunbat arratsaldetan
irekita**